

@@@IRAGARKIA, administrazioarekiko auzi-errekurtso batean hirugarren interesdunak epatzeko dena.@@@

Hirugarren interesdunei jakinarazten zaie XXXXXXXXXXXXX-k administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu duela (981/2011 prozedura arrunta) Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2011ko martxoaren 3ko Aginduaren aurka; agindu horren bidez, ezetsi egin zen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2010eko abenduaren 17ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa (ebazpen haren bidez, deialdia egiten zen, batetik, irakaskuntzako kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurarako, eta bestetik, irakasleen kidegoko funtzionarioentzat espezialitate berriak eskuratzeko prozedurarako).

Beraz, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1995 Legearen 49. artikuluan xedatutakoa betez, interesdun guztiak epatzen dira, eta ohartarazten zaie bederatzi egun dituztela, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita, aipatu prozedura judizialean agertzeko eta pertsonatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 21a.

Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendaria,
ANA ISABEL CARO MUÑOZ.